



“Zinema beti da memoria”

Helena Taberna

Dena ez da berri ona.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Josu Santesteban

Hara, berari buruzko informazio oro ezkututzen duena!

Zer ardura du dibortziatua naizen ala ez, zazpi haur ditudan ala haurrik ezin dudan ukan, nire aukera sexualak zein diren, ala Errege Magoei buruz zer iritzi dudan? Niri buruzko informazioak ikuslea eta pelikula baldintzatzen dituzten etiketak dira.

Baina XXI. mendeko gizakia baino etiketazeleagorik...

Zer eta nola kontatzen dudan da garrantzitsua. Hortik landa, gorroto ditut pelikula kontatzen dizuten trailerrak, pentsatu eta ikusi behar duzuna azpimarratzen dizuten filmak... Konfiantza osoa daukat ikuslearen inteligentzian.

Mundu honetakoa zara?

Noiz ulertuko dugu ebidentea azpimarratzea mingarria bezain iraingarria dela? Pentsa, batzuetan hala helarazi izan didaten mezua gorrotatzera iritsi naiz, nire ideiekin bat zetorren arren.

Segi, segi kritikari zenbaiti letaginak zorrotzen!

Ideologia jakin bateko kritikaren perbertsioak politikotzat jotzen den film oro panfletotzat katalogatzen du. Nik hasi aurretik dakit panfletoak zine txarra dakarrela. Horregatik bakoitzak erabaki dezala zer pentsatu, non kokatu, istorioa nola borobildu.

Aukeratzen dituzun gaiak ikusita, zuri hatza zaurian sartzea gustatzen zaizu.

Hollywoodeko nori otuko zaio Yoyes edo Nagore Laffageri buruzko pelikula bat egi-

tea? Ezinbestekoa da herri batek bere historiak kontatzea. Historia eta istoriorik gabe ez gara ezer, eta zinema beti da memoria.

Baina memoria ez al zuten irabazleek elikatzen?

Bakoitzak elikatu behar du berea. Ez pentsa hautatzen ditudan gaiak hautatzeko DNA berezia dudanik. Munduan bizi naiz, munduan gertatzen direnek hunkitzen naute, eta zine-maitale gartsua izaki, ikusi nahi nituzkeen pelikulak egiten saiatzen naiz.

Independentzia, astero ez bada ere, pelikula oro ikusi dadila.

Zinema egitea oso gaitza da, ez esfortzu artistikoagatik soilik, finantziarioarengatik baizik. Gainera, niri saltsa gustatzen zait, periferiakoa naiz, emakumea... Zailtasun erantsi asko daukat, baina independentea ez banintz ez nuke filmik egingo.

Eskerrak zine-aretoak husten ari diren...

Zer kontatua dagoen artean, istorio zinematografikoek izango dute lekua han edo hemen. Niri filmaren osteko kafe-tertulia galtzeak ematen dit pena. Krispetak izozteko egiten ditut pelikulak, jendeari zeresana pizteko, eta errito soziala desagertzen bada...

Gizonezko zuzendariei euren protagonistak zer-gatik diren gizonezkoak galdetuko diegu.

Ordainduko nuke batzuen aurpegiak ikusteagatik! Apurka-apurka aurrera goaz, baina Goya sarien palmarena ikusi besterik ez dago: ia erabateko maskulinitatea. ■

